



Helduen Literatura | POESIA

Trenen abiadura
Luis Garde
Pamiela, 2014

Bultzi-leiotik

TRENEN ABIADURA irakurri eta *Unplugged* (Kutxa Fundazioa, 2009) etorri zait gogora ezinbestean. Iritsi ezin gaitezkeen eremuak esploratzeko baliabide-tzat erabili zuen poesia Luis Gardek orduko hartan. ARGIAko orrialdeotan irizten genion “bizitza modernoaren gailu, presa eta hustasun guztiak azaleratzen” zituela, baina betiko galdera zaharrak pausatuz finean: norantz goaz? Ze zulotan galtzen da galtzen dena? Tristeziaren zauriak zelan senda daitezke?

Oraingoan ere gauzak ulertzeko asmoz atera da bidaian poeta, eta esku-hutsik itzuli da. Itzuleran bere barne-paisaia baino ezin izan digu ekarri bueltan. Gugan dago bidaia, dena doa mudatuz trenak aurrera egin ahala. Treneko leihoek, gainera, norbere isla dute itzultzen.

Bi zatitan ebazten den ariketa da *Trenen abiadura* ia-ia monolitiko honetan opatu zaiguna. Lehen poemak Paul Valériren aipua du abiapuntu, zeinaren arabera “gizakiak gaur ez zukeen poesia asmatuko”. Gauzak labur eta efimeroak direla esateko beste modu bat da. Poesia asmakizun delikatua da, gu geu pentsamendu huts.

Bigarren poeman YouTubeko pantailatxoan tren transiberiarra zelan igarotzen den ari da ikusten idazlea, bera Veneziara bidean doan bitartean: “Veneziako kalezulo batean errailetatik irtenda/ las-

terka zihoan neska ezezagun hura./ Nire Tristetia-
ren ondorengo loaldian/ amesgaiztoren batean gal-
dutako neska izutu harekin/ harat-honat korrika
ibili nintzen”.

Sartu-irtenak egiten ditu Gardek imajinaziotik errealtatera. Batzuetan bera ez da inor, eta beste batzuetan dena hartzen du, guztiak dirudi bere amets eta paradoxa. Liburua bera halako gertagaitz eder batekin bukatzen da, non urrun eta urrunago doazen tren siberiarra eta Venetokoa, urrun eta urrunago gorputzak, bihotzak, gero eta bakartiago idazlea bera ere... Bidaia sinbolikoan Garde urtu egiten da, bidaian joan zena handik aldatuta itzuli da, besteen oinazea ezagutu du. “Nork bere minaren izerdian/ blaitzen du inguruko jendea”.

Liburuak detaile politak ditu, eternitatearen inguruko ariketa txalogarria da. Ez ditut ondo ulertu ostera sobietar sistemaren inguruko zenbait adornu, eta iruditzen zaizkit hutsalak hainbat gogoeta metaliterario. Konprimitu beharrean eta triki-traka erraztu, galdu bezala egiten da idazlea helburu garbirik gabe, ez estetikorik ez adierazpi-dezkorik, eta halakoetan melenga gertatzen da. Intelektualizazio gehiegizkoa, ausaz. ■

Igor Estankona



Txipiroiak plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com